

**Gure Lagunak**

"Las Bartolinas", Bolivia.

**Proiektu eredugarria**

Cumaica eta Alegre mendixkak: Nikaraguako birika berdea salbatu.

**Iparra galdu gabe**

Gastu militarren inguruko zerga-eragozpena.

**Aurpegia emanetz**

Sara Melgar, Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako boluntarioa.

Larrialdia

Gazaren aurkako eraso bortitzari erantzuten dio Mundubat-ek

Gabonetan, Israelgo armadak Gazako lurraldean garatutako eraso ankerraz geroztik, Mundubat palestinarren premia larrienei aurre egiteko eta berreraikuntzarako oinarriak ezartzeko ari da lanean.

Partikularren eta erakunde publikoen (Bilboko Udala, Larrialdietarako Arabako Fundazioa eta Eusko Jaurlaritzak) ekarpen solidarioen bidez, Gazako iparraldeko Al Awdako ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatea hornitu da. Hainbat eta hainbat zauritu atxanditu dituen ospitalearentzat ezinbestekoa da ZIU hobetzea.

Mundubat Union of Health Work Committees (UHWK) GKE palestinarrean oinarritu da bere lana garatzeko. GKEk, hain zuzen ere, 1985. urtetik darama Gazako osasunaren arloan lan egiten. Israelgo gobernuaren erasoaren eta blokeoaren ondorioz oztupo ugari sortu badira ere, UHWCK baliabiderik gabekoak eta, batez ere, emakumeak eta umeak atxanditzeko osasun-programa integrala jarri du abian. Gaur egun, sei osasun-zentro ditu abian Gazako lurraldean.



Bere lana ez da erraza. Bi aldiz, GKEren anbulantziak bonbardaketan jomuga izan dira, zibil zaurituen laguntza-deiei erantzun dietenean. Eraso horien ondorioz, UHWCKo kide bat hil zen, eta beste bi larriki zauritu zituzten. Horrez gain, UHWCKo zentroak gabezia larriak ditu sendagaien arloan (anestesia, lasaigarriak), gemizidetan, tresna kirurgikoetan eta zainketa intentsiboetako ekipoetan.

Al Awdako ospitalea UHWCKo zentro handiena da, 1997. urteaz geroztik dago abian eta Gazako iparraldeko barrutiko ospitale bakarra da. Gazako lurraldeko eremu hondatuenetakoan dago kokatuta, Jabaliako errefuxiatuen eremuan, alegia. Ospitaleak honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: 24 orduko larrialdiak, ebakuntza kirurgikoak, amategia, obstetriziaz eta barruko zein kanpoko kontsultak.

Baldintza arruntetan, ospitaleak sektore pribatuko kostua baino askoz txikiagoak diren kuotak kobratzen ditu zerbitzugintzagatik, eta gaixoen %45ek, behintzat, ez dute ezer ordaindu behar. Gaur egungo baldintzetan, ospitaleak ez du txintik ere kobratzen zerbitzua emateagatik.

Zure, gure lanabesa

1988an, Hirugarren Mundua ta Bakea sortu zen, hegoaldeko erkidegoei justizia sozialaren eta giza garapenaren erronketan laguntzeko.

Gaur egun, Mundubat izenpean, geure helburuari eusten diogu: pertsona guztiek, emakumeek zein gizonek, eskubide guztiak edukitzea mundu partekatuan.

Ahalegin solidario horren adierazgarri da berripaper hau. Bi hilean behin argitaratuko dugu, eta elkar-gunea nahiz tresna erabilgarria izan nahi du bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa den beste mundu batean sinesten dugunontzat.

Zure iradokizun eta ekarpenen zain egongo gara!



Agenda

- Apirilak 20-30 / Jalgi, Lasarte, Gipuzkoa. argazki-erakusketa **"Beste bazterretiko begiradak"**.
- Apirilak 29 / SURALIA (Joaquín Roncal Zentroa. c/ San Braulio 5-7), Zaragoza Dokumentala **"Bakearen aldeko erresistentziak"**
- Maiatzak 4-9 / Basauriko Jabekuntza Eskola. **Emakume nekazariekin egindako tailerrak. Parte-hartzaileak: Mozanbikoko UNAC eta Brasilgo MST.**
- Maiatzak 4-15 / Muskiz, Bizkaia. argazki-erakusketa **"Beste bazterretiko begiradak"**.
- Maiatzak 22 eta 23 / Egiako Txoko Internazionalista Donostia **Emakumeen giza eskubideak tailerrak. Irene López Méndez**
- Maiatzak 25-29 / Getxo, Bizkaia **Emakume nekazariekin egindako tailerrak. Parte-hartzaileak: Kolonbiako FEMUCAN eta Guatemalako CUC**

Gure Lagunak



"Bartolina Sisa"

Boliviako Emakume Nekazari Indigenen Konfederazio Nazionala

Bartolina Sisa Espainiako botere kolonialaren aurkako matxinada indigena nagusietako burua izan zen Tupak Katari historikoarekin batera. Modu berean, Boliviako Emakume Nekazari Indigenen Konfederazioa gizon eta emakume guztientzako gizarte bidezkoagoaren inguruko kontzientzia hartzeko eta aldarrikatzeko prozesuko burua da.

Sindikatu 1980. urtean sortu zen, eta, harrezkero, ehun milaka emakume indigenaren erreferente politiko eta soziala da. Emakumeok, hain zuzen ere, eredu ekono-

miko eta politikoaren biktimak izan dira, baztertu egin zituelako eta euren eskari historikoak zein bizi-baldintza duinetarako eskakizunak ezkutatu zituelako.

Gaur egun, euren aldarrikapenak onesteko testuingurua egokiagoa denean, "Bartolina Sisa" konfederazioak presuntakuntza eta trebakuntza eskaintzen dizkiete emakume indigenei, erakundea sendotzeko eta alternatiba politikoaren eraketan parte hartzeko. Horrela, bada, jatorrizko kulturen kontzepzioak eta balioak kontuan hartuta, elkartasunean oinarritutako eredu sozialak sortuko dituzte, eta gure garaian hain hedatuta dauden indibidualismoari zein kontsumismoari egingo diete aurka.

Bide horretan, "Bartolina Sisa" konfederazioak eta Mundubat-ek etorkizunerako apustu eta printzipio etiko partekatuar aurkitu dituzte, eta lan-estrategiak garatu dituzte, hegoalde soziala uztartzen duten lotune estuak sendotzeko eta beste era bateko munduaren aldeko ahotsak biderkatzen dituzten sareak eratzeko.

Mundubat-en eta "Bartolina Sisa" erakundearen arteko babesari esker, zenbait ekimen garatu dira, liderrak prestatzeko, giza eskubideen arloko trebakuntza eskaintzeko eta Boliviako bederatzita departamentuetako landa-inguruneke udalerrietan duen eragin politikoa sendotzeko.



Hona hemen "Bartolina Sisa" erakundearen eta Mundubat-en arteko aliantza estrategikoaren zutabeak: elkarrekiko konpromisoa, baterako erantzukizuna eta, mundu bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko alternatiba ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak sortzean, trukeak eta nazioarteko elkartasunak duten garrantziaren onespina. Horrela, oinarri sendoak ezarriko dira, baterako hazkuntzari eta gizarte-eraldaketari begira.

Proiektu eredugarria

Cumaica eta Alegre mendixkak: Nikaraguako birika berdea salbatu

Mundubat-ek herrialdeari ura hornitzen dion basoa zaintzeko eta kudeatzeko proiektuan parte hartzen du

Nikaraguako bihotzean, Boaco eta Matagalpako departamentuetan, Cumaica eta Alegre mendixkak daude, eta herrialdeko zati handi bati ura hornitzen dion erreserba natural aberatsa osatzen dute. Mundubat-ek bertan lan egiten du basoaren zainketa eta kudeaketa iraunkorra sustatzen dituen proiektuan.

Ekosistema hori oso garrantzitsua da Nikaraguarentzat, bertako baso-eremuek ura sortzen dutelako eta Malacatoya ibaiko arroaren higadura murrizten dutelako. Gainera, ibaiko emari energia hidroelektrikoa sortzen duen Las Canoas presa hornitzen du. Hori horrela izanik ere, erreserbako baliabideak bereizgabe erabiltzen dira, biztanleek ez dakitelako zeintzuk diren haren eginkizunak eta estatuak erabilera hori arautzeko planik eta araudirik ezartzen ez duelako. Babestutako eremua lau udalerriakoa denez, are zailagoa izan da babestea.

Mundubat-en ekintzak eremu babestua zaintzea eta iraunkortasunez kudeatzea du helburu, tokian tokiko eragileen koordinazioan oinarrituta. Proiektua bera Garapen Integral Bateratua Sustatzeko Elkarteak (ASPRODICEK) betearazi eta Europar Batasunak finantzatuko du milioi bat eta erdi euroren bidez. Horrela, erkidegoak kontzientziatu egingo dira, eta baliabide naturalak iraunkortasunez erabiliko dituzte. Gainera, horretarako tresnak eta alternatiba ekonomikoak emango dizkiete.

Esparru horretan, Mundubat-ek eragileen arteko koordinazioan parte hartzen du (ingurumenaren zainketa zerkusian duten tokian tokiko eta estatuko instituzioak eta inguruko ekoizleak), Cumaica eta Alegre mendixkak batera eta udalerrien artean kudeatu dadin. Kudeaketa Lantaldea sortu da, eta nekazarietarako ingurumen-prestakuntzako tailerretan parte hartzen du.

Horrez gain, azterketa teknikoak egiten ari dira inguruko biztanleen laguntzaz; esate baterako, erreserbako flora eta faunaren inbentarioa. Era berean, kontzientzia ekologikoa sustatzeko asmoz, lurzuorak ez erretzeko kanpainak, ingurumen-erloto foroak eta ikasleen kabildoak egin dira udalerrietako alkatezuekin eta harremanak ezarri dira prentsarekin. Bestetik, inguruko landa-eskolek lana ere bada lehentasunezkoa. Bertako irakasleak, hain zuzen ere, Nikaraguako

Unibertsitate Nazionalak emandako Ingurumen Diplomatura egiten ari dira, ikasleei balio ekologikoak igorri diezazkieten.



Proiektua, ordea, kontzientziazioetik haratago doa. Izan ere, birmoldaketa zehatza jarri da abian basogintzako lurretan ekoizpen kaltegarria garatzen zuten 465 familiaren artean. Mundubat-ek eurekin lan egiten du, epe luze, ertain eta laburreko laborantzak txandakatzen dituen ekoizpen dibertsifikatura igarotzeko, lurzuoraren kalitatea nabarmen hobetzeko eta produktu kimikoen erabilera murrizteko. Horretarako, egurraren erabilera gutxitzeko biodigestoreak eta sutegi hobetuak eraikitzen ari dira, eta kafea garbitzean sortutako uren kutsadura murrizteko onura hezeak ezartzen ari dira.

Iparra galdu gabe

2008ko Errenta Aitorpena

Gastu militarren inguruko zerga-eragozpena

Errenta-aitorpenik egin behar baduzu, gastu militarren inguruko zerga-eragozpenean parte hartzea proposatzen dizugu, armek ez dutelako inoiz bidezko bakerik ekarriko eta zerga-eragozpena eskubidea izan behar delako.

Nola egin zerga-eragozpena?

1. Aukeratutako helmuga-kontu alternatiboan egin diru-sarrera eta ordezlagiria aurkeztu aitorpeneko gainerrako agiriekin batera.
2. Kenkarien atalean (seme-alabak, gaixotasuna...), hauxe idatzi: "Gastu militarren inguruko zerga-eragozpena-gatik" eta eragotzitako zenbatekoa adierazi.
3. Gutun argigarria sartu. Eredua erantsi dizugu.
4. Zeure datuak (izen-abizenak, posta-helbidea eta IFK) eta eragotzitako zenbatekoa bidali helbide honetara:

Mundubat. Att. Zerga-eragozpena. Kapelagile kalea 2, 3. 48005 BILBO

Aitorpena egin baduzu, helmuga alternatiboan egin diru-sarrera. Ondoren, instantzia-gutuna bidali Ogasunari. Bertan, zerga-eragozlea zarenez, diru hori desbideratu egin duzula adierazi eta ordezlagiria bidali. Beraz, Ogasunak zeure aitorpena aldatu beharko du, diru hori beste helburu baterako eman duzula kontuan hartuta. **Zerga-eragozpenak aitorpen negatibo zein positiboetan du balioa.**

Mundubat-en proposamena: Mendebaldeko Saharari lagundu

Mundubat-ek konpromisoa hartu du Saharako herriak askatasunaren alde garatutako **borrokarekin**. Horretarako, salaketak eta presioa egiten ditu gobernuetan, Nazio Batuen ebazpenak behingoan ezartzeko eta Saharako herriak autodeterminaziorako eskubidea erabili ahal izateko. Dena dela, aldi berean, konpromiso horren bidez, zenbait proiektu garatzen ditu, Aljeriako kanpalekuetako errefuxiatuek elikadura, osasunean eta garraioan dituzten funtsezko premiei aurre egiteko.

Oraingoan, **"Elikaduraren subiranotasuna" ekimena babesteko eskatu nahi diguzu**. Izan ere, oinarritzko dieta handitzea eta dibertsifikatzea du helburu, eta, horretarako, baratzeak sortu eta hegaztien granja zein gameluen eta ardiendi azienda garatuko dira.

84 euroko diru-sarrera (edo beste bat) egin, bi banku-kontu hauetako batean:

Euskadiko Kutxa-Caja Laboral: 3035 0083 20 0830090006
Santander Central Hispano: 0049 4808 36 2216197615

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

Palestinako genozidioa

Apirilaren 2an, Alberto Arce dokumentalistak hitzaldia eskaini zuen Donostiako udal-liburutegiko ekitaldi-aretoetan. Bertan, hain zuzen ere, abenduan eta urtarrilean Israelgo estatuak Gazako lurraldean garatutako krimenen berri eman zuen.



Alberto Israelen eraso basatiko lekuko zuzena izan zen, eta bertan bizitakoa azaldu zien Gerraren aurkako Gipuzkoako Plataformaren deialdian parte hartu zuten ehunka laguni (Mundubat plataforma horretako kidea da). Era berean, Israelgo estatuari boikota egiteko deia egin zuen, Palestinako biztanleek bizi duten apartheid-arabidea behin betiko desagerrarazteko.

Alterglobalizazioa eta krisia

Martxoaren 25ean, 27an eta 30ean, alterglobalizazioari eta krisiari buruzko jardunaldiak egin ziren Bilbon, eta hizlari ospetsuek parte hartu zuten bertan. Gainera, jende ugari bertaratu zen.

Carlos Taibó Madrileko Unibertsitate Autonomoko Politika Zientzia eta Administrazioari irakaslea eta globalizazioari zein globalizazio neoliberalaren aurkako borrokei buruzko idazle teoriko ospetsua da. Azken hamarkadotan, gaur egungo krisiak eragin dituzten jarduketak eta euren aurrean sortutako borroka nahiz proposamenak aztertu zituen, beharpenaren teorian oinarrituta.



Arcadi Oliveres Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Ekonomia Saileko irakasle titularrak eta Justizia i Pauko presiden-

tea da. Horrez gain, oso ezaguna da justizia sozialaren, bakearen eta antimilitarismoaren alde eta kanpo-zorraren aurka garatutako militantzia eta ekintzaitzazgatik. Arcadi, hain zuzen ere, honako hiru arloetako krisien alderdiak garatu zituen: elikadura, ingurumena eta finantza-ekonomia. Lehenengoari dagokionez, aurrerakuntza teknologiko eta gain ekoizpenaren eta gosearen artean dauden kontrasteak azpimarratu zituen, eta, aldi berean, adibideak eta datuak eskaini zituen. Ingurumenaren arloko krisia eta aurrekoa erronka eta mehatxu handiena dira gizakien biziraupenari begira, eta ez da euren aurkako ezer egin munduko interes ekonomikoen ondorioz. Hori guztiori finantza eta ekonomia arloko hirugarren krisiarekin dago lotuta, eta, bertan, honako gai hauek jorratu zituen: kapital-mugimenduen botere espekulatiboa, arriskuak eta biztanleentzako ondorioak.

Roxana Martel salvadortarra UCAko irakaslea eta Gazteen Indarkeria Prebenitzeko Erdialdeko Amerikako Koalizioaren kidea da. "Erdialdeko Amerikako indarkeria soziala eta giza eskubideak" mintegia koordinatu zuen. Bertan, hain zuzen ere, honako gaiok izan zituzten aztergaiak: eskualdeko indarkeria sozialeko prozesuak, estatuak emandako erantzunak eta bi egoerek herritarren giza eskubideetan duten eragina.

Herrien eskubideak

Globalizazioa aztergai, apirilaren 2an, "Herriek globalizazioaren aurrean dituzten eskubideak eta eraldaketa" mintegia egin genuen Madrilen, eta, besteak beste, honako hauek parte hartu zuten bertan: Asoc-Katio, Zaragozako Elkartasun Internazionalistarako Lantaldea, Ekologistak Martxan, Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Elkarteen Federazioa, 2015 eta gehiago Plataforma, Merkatuaren Globalizazioari eta Zigorgabetasunari aurre egiteko Alternatibaren Sarea, Itaca Sare Solidarioa eta Soldepaz Pachakuti. Hau da, pentsaera kritikoa ordezkatu eta zilegizko borroka gorpuzten duten pertsonak eta erakundeak parte hartu zuten bertan. Euren helburua lortzeko asmoz, gainera, herrien eskubideak aldarrikatu eta eratu egiten dituzte hegoaldearen nahiz iparraldearen arteko sinergien ikuspegitik. Oso eremu aberasgarria izan zen, esperientziak zein proposamenak trukatzeko, globalizazioa modu kritikoan aztertzeko eta alternatiben autokritika egiteko.

Aurpegia emanez

Sara Melgar, Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako boluntarioa



"Mundubat-en, boluntarioenganako konfiantza dugu, eta inplikatzeko eta prestatzeko ahalegina egiten dugu"

Zergatik egin ziren Mundubat-eko boluntario?

Gazte-gaztetatik, gizarte-mugimenduetan inplikatzeko kezka izan nuen, nik neuk ere aldatu nahi nituen gauzak aldatzeko borrokatzen zirela ikusten nuelako. Niretzat oso baliotsua eta mirezgarria zen nola lan egiten zuten, herrialde txirotu eta aberastuen artean aberastasuna bidegabekeriak banatzeko prozesua hobetu nahian. Gaur egun, lankidetzari buruz daukadan ideiak ez dauka inolako zeri kusirik duela bost urte neukanarekin. Hala ere, oraindik niretzat oso hunkigarria da mugitu, borrokatu eta beste pertsona batzuei elkartasuna adierazten dien jendea dagoela ikustea. Erakunde hau neskalagun baten bidez ezagutu nuen, eta hona iristeko behar nuen azken bultzada izan zen.

Zertan lagundu duzu boluntario egon zareneko garaian?

Gutxi gorabehera, bi urte eta erdi daramatzat Mundubat-eko Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntza Sailean laguntzen. Bertan, hain zuzen ere, era guztietako jarduerak eta lanak egin ditut: errazak, mekanikoak, zailak eta konprometitua. Proiektuak justifikatzeko txostenak egiten lagundu diet; proiektuak betearazten lagundu diet, hau da, jarduerak antolatzen: foroak, tailerrak, hitzaldiak eta argazki-erakusketak; kartelak itsatsi ditut; erakundearen zabalkunde-argitalpenak bidaltzeko datu-baseak egin ditut; Mundubat-ek egindako dokumentalak aurkezten eta ematen lagundu diet zenbait zentro eta elkarte kulturaletan; Gizarte Hezkuntzako praktikak egin ditut...

Euren artean, zenbait jarduera nabarmen-duko nituzke: bigarren hezkuntzako insti-

tuetan generoari buruzko tailerrak eman izana eta Saharako emakumei buruzko argazki-erakusketan gidari lan egin izana. Halakoetan, inplikazioa handia da benetan, eta asko ikasten duzu.

Niretzat pozgarria da erakundeak, oro har, eta sailak, batez ere, boluntarioenganako konfiantza dutela eta inplikatzeko eta prestatzeko ahalegina egiten dutela ikustea.

Etokizunean, zertan inplikatzeko zara boluntario moduan?

Mundubat-eko boluntario moduan, orain dela gutxi eraturako boluntario-taldea sendotzen eta hazten lagunduko diet. Era berean, ikasten jarraitu eta nire inplikazio-maila handitu nahi dut, helburu ditugun aldaketak gauzatzeko eta erakundearen boluntario moduan garatzen dudana lanaren zentzua ez galtzeko.

Zer eman dizu Mundubat-en borondatez garatutako lanak? Zure ustez, zer ekarpen egiten dituzte boluntarioek erakundearen bertan?

Mundubat-en borondatezko lanerako dagoen esparruari esker, jende zoragarria ezagutu dut, lankidetzaren arloko prestakuntza jaso dut eta nire kezkak garatzeko eta borrokatzeko bitartekoa daukat.

Proiektuak betearazteko eta jarduerak garatzeko laguntza hutsa ez ezik, boluntarioek biziaren handia ere ematen diote erakundeari. Era berean, beste begirada bat eskaintzen diete Mundubat-eko langileak diren profesionalak. Euren ahalmenen arabera, boluntarioek erakundearen beste edonork bezalako ekarpena egiten dutenez, erakundearen garesteko moduko ezaugarria dela esan daiteke.

Argitalpenak

Indigenen aurreikuspenak



Zaragozako Elkartasun Internazionalistarako Lantaldearen laguntzaz, Gakoak editatutako *Perspectivas indígenas para el siglo XXI* liburua argitaratu du Mundubat-ek (fondo editorialeko 9. zenbakia).

Argitalpen hau jatorrizko herrietan eta bertako erakundeetan garatzen ari diren prozesuetara egindako hurbilketa da. Zenbait artikuluren bidez, gaur egungo eta etorkizuneko ibilbideak aztertzen dira. Kolonbiakoa bezalako gatazka armatua bizi duten indigenen erresistentziak behartu nahi izan ditugu. Era berean, honako hauexek ere baditugu aztergai: emakume indigenen zeregina, Peruko ibilbidea eta aurreikuspen berriak eta, nola ez, errealitate zapatistak sortutako jabekuntza eta Boliviako herri indigenen birsorkuntza. "Iparrraldetik" eman daitezkeen begirada guztiak azaltzen dira. 205 orrialde. Gaztelaniaz.

Bolivia zutik



Bolivia aldatzen ari da. Era baketsu bezain demokratikoan, Evo Morales Aymak, Amerikako historiako lehen presidente indigenak, bostehun urteko kolonizazioa utzi du atzean, eta guztiak egindako konstituzioa atera du aurrera.

Bertan, hain zuzen ere, herri indigenak onesten dira, eta, horrez gain, eskubideak ematen zaizkie. Dokumental honetan, honako hauexen lana ikusiko dugu: emakume komunikatzaile kitxuk eta aimarak, koka-ekoizle afroboliviarrak eta ekintzaile txikitanak eta guaraniak, hau da, aldaketa bultzatu duen gizarte-oinarri anonimoa. 32 minutu. DVDa gaztelaniaz eta euskaraz dago eskuragarri.



**Bat egin!
Izan bazkide**

Mundubat GGKE
Sombrereria, 2 3. / 48005 BILBO
(+34) 944 162 325
mundubat@mundubat.org
www.mundubat.org